

## “Oinarriak” Taldea Nafarroan jorratzen ari den saiakera

*Eduardo Conde*

### Zer da “Oinarriak” taldea?

“Oinarriak” taldea euskararen inguruan lan egiten edo sentsibilizazio berezia duten erakunde, talde eta pertsonen bilgunea da, gaur egun euskarak bizi duen egoera gutxiengotua gainditzeko oinarri oinarrizko baldintzen alde ari dena Nafarroan.

Taldeak 1991ko apirilean bere lehen Batzarra burutu zuenean taldearen ezaugarrien definizioa egin zuen, eta honako hauek lirateke funtsezkoenak:

\*Gizarte eta politiko mailan euskararen alde kontsentsu edo adostasun zabala bilatzeko asmoa.

\*Irekitasuna.

\*Iraunkortasuna. Erritmo guziak zainduz, beraz, bakoitza bere ahalmenaren arabera.

\*Elkarlana eta batasuna.

Harrez geroztik elkarlan iraunkorren maiztasun batez edo bestez honako talde hauek egon gara: Marmari (Diputazioko langileen euskara batzordea), Giltza (Iruñeko Udaleko langileen euskara batzordea), Ozenki (Telefonikako langileen euskara batzordea), “Euskalerrria” irratia, EHE, AEK, IKA, Iruñeko Udal Ikastolako irakasle batzu, STEE-EILAS, LAB (irakaskuntza), Udal Euskara Teknikariak, Antsoingo Euskara Patronatua, UPNAko Euskara Teknikaria. Hauetaz gain aipatzekoa da ere bertan arrazoi ezberdinengatik egoterik izan ez duten taldeak ere badirela, baina

atxikimenduaz gain lanak burutzeko prest daudenak eta parte hartzeko ere, hala nola, Nafarroako Ikastolen Federakuntza, Magisteritza Eskolako euskarazko lerroko irakasleak, HEI, Funtzionarien Euskaltegia.

### **Nola sortu zen taldea?**

1990eko urrian Nafarroan Euskara hutsez ari ziren bi irratia ("Xorroxin" irratia Baztan aldean eta "Euskalerrria" irratia Iruñerrian), emititzeko frekuentziarik gabe geratu ziren honetarako egin zen lehiaketa publiko batean. Hau gertatu zela eta, irratiek deituta euskararen inguruan diharduten zenbait erakunde eta pertsona bilzen eta mobilizazioak burutzen hasi ziren.

Geroxeago, Magisteritza eskolako lerro euskalduna desagertarazi zuten (Nafarroan Unibertsitate mailan euskaraz buru zitekeen ikasketa bakarra hain zuzen) ikasketa horiek burutzeko zegoen ikasle kopuru urria aitzakiatzat hartuz.

Bi arazo hauek zirela eta, kanpaina bat antolatu zen eta manifestazio batekin bukatu.

Honen ostean, euskara zela medio, beti arazo puntualetarako elkartzen ginela ikusi zen, arlo guztietan gisa bateko edo besteko arazoak zeuden bitartean eta guztiak edozein gutxienezko eskubidetik beheragoko mugak eta oztopoak. Azterketa honen ondotik sail edo arlo ezberdinetako jende eta taldeak elkartuz euskaldunon eta euskara ikasi nahi dugunon gutxienezko eskubide aldarrikagarriak zehazteari ekin zitzaion eta guzti hori aurrera ateratzeko lan iraunkorra burutzeko hitz eman ez.

Orduan, arlo bakoitzeko erakunde eta pertsonak beren arloetan behar ziren minimoen zerrenda ekarri zuten. Denon arteko lanen batuketa egin zen eta idatzi, honela bide luzea burutu ondotik (hiru hilabetekoa gutxi gora behera) 23 puntu zehatz bost ataletan sailkaturik lotu ziren. Puntu edo aldarrikapen hauei ingurunerik eman behar zitzaie eta, sarrera modura beste bost baieztapen edo definitu ziren.

### **Aldarrikatzen diren puntuak**

Puntuen azalpenarekin hasi baino lehen, taldeak bere egin zituen zenbait eritzi aipatzea komenigarria litzateke:

\*Taldea ez da arduratzen gaur egun indarrean dagoen legeria egokia den ala ez aztertzen. Bertan gai honi buruz ere eritzi ezberdinak baitaude.

\*Puntu erabat lorgarriak aldarrikatuko dira eta edozein pertsona edo talde politikorentzat onargarriak.

\*Puntu hauek zehazterakoan asmoa ez da hizkuntz politika bat edo legeri bat garatzea, guzti hau puntu hauek baino askoz ere lan sakonagoa baita.

\*Puntu batzu legerian onartuak baldin badaude ere errealitatean inondik ere ez direlako betetzen sartu egiten dira.

\*Puntu hauek beraz, esan bezala, oinarri oinarritzekoak dira funtsezko eskubideen aurkako neurrigabeko erasotzat hartzen direnak.

\*Bukatzeko, gure arteko adostasun osoz onartutakoak dira, ezadostasunak, orain-

goz behintzat, baztertzen direlarik gai horietan aurrerago sakontzeko.

Goazen bada puntuak azaltzera:

#### **Euskararen aldeko oinarriak Nafarroan.**

-Euskara, nafar hizkuntza da, beraz, guztiok dugu jakiteko, ikasteko eta arlo publikoan nahiz pribatuan erabiltzeko eskubidea.

-Hizkuntza hau, euskara, egoera larrian, galbidean dago. Bera bultzatzeko eta egoera hau gainditzeko sortzen diren ekimen guztiak behar beharrezkoak dira.

-Euskararen hedapena Euskal Herriko eremu geografikoari hertsiki mugaturik egonik, gure hizkuntza Nafarroan gal ez dadin guztiok dugun erantzunkizunaz jabetu behar dugu.

-Gauzak horrela, ezinbestekoa deritzogu bai gizartean eta baita politika arloan ere kontsensu edo adostasun zabala hizkuntzaren auzian egoteari. Itun honek, adostasun horren bidea zabaldu nahi du.

-Administrazioen egitekoa, ez da eskakizuna asetutakoan agortu behar, hori bermatu behar badu ere, herritarren bultzatzaile eta dinamizatzaile lana egin behar du hizkuntzarekiko.

#### **Administrazio eta zerbitzu publikoak**

-Onarpen soziala lortzeko euskarak denon ahalegina behar du, horretarako motibatzaile izan daitezkeen iharduerak bultzatu behar dira eta lagungarri izan daitezkeen aldiko kanpainak garatu.

-Administrazioek euskararekiko jarrera eta konpromezua aldatu behar dituzte, konpromezu hau Administrazioen sail, atal eta zerbitzu guzti eta bakoitzera zabalduz, hala nola Administrazioaren menpe dauden erakunde eta soziedadetara baita zerbitzu publikorik eskaintzen duten enpresetara (ITC, CAN, RENFE,...).

-Administrazioek eta zerbitzu publikorik eskaintzen duten enpresek lehentasuna emango diete gizartean eragin zuzena duten zereginei ( Administrazioen eledun euskaldunak, prentsa bulegoak, mota guztietako egitarauak, argibideak,...).

-Hiriburuak Nafarroako biztanle guztion eskubide linguistikoak bermatzeko status elebiduna izanen du.

-Herritarrekiko harremanak eta komunikazioa ziurtatzeko, hala nola barne iharduna euskalduntzeko, Administrazioek eta zerbitzu publikorik eskaintzen duten enpresek plangintza bana eratu behar dute, Udalerrietan egoera soziolinguistikoari dagozkion euskararen aldeko ordenantzak idatzi eta bete araziz.

-Administrazioen nahiz zerbitzu publikorik eskaintzen duten enpresen euskalduntzea laguntzeko, lan eskaintza publikoan euskarari merezimendu berezia emanen zaio.

-Gobernuak laster ateratzeko duen herrien izenak definitzeko dekretuan, Euskaltzaindiak egindako Nafarroako herrien izendegi osoa hartuko da kontutan.

### **Irakaskuntza.**

-Hezkuntza sistema osoan, hautzaindegitik Unibertsitateraino, eta atzerapausorik gabe, ikasketak euskaraz egiteko aukera bermatuko da.

-Murgiltze bidezko hizkuntz ereduko lerroak eta egitarauak bultzatuko dira.

-Ikastetxe euskaldunak kokatzeko, eragin eremuaren erizpidea kontutan hartuko duen plangintza Nafarroa osoan eratu da.

-Euskarazko ikasketen mesedetan, ikasle multzo ratioak zehaztuko dira.

-Baldintza pedagogikoak hobetuko dira: material didaktikoa, unitate teknikoak, langilegoa euskalduna, irakasleen euskalduntze eskubidea, eguneratzea, e.a.

-Euskal ikastetxeak bultzatuko dira edota lerro elebidunak dituzten ikasguetan elebitasuna ikastetxe osora zabalduko da.

-Administrazioak bere gain hartuko du ikastolen diru egoera eta finantzabidea, beren izakerari men eginez.

-Unibertsitatean euskarari duintasunezko tratamendua emango zaio, dauden ikasketei eutsiz eta berriak sortzeko ekimen bereziak eginez.

### **Helduen euskalduntze alfabetatzea**

-Ekinbide hau zerbitzu publikoa izanik, honetarako behar diren diru-laguntza guztiak emanen zaizkio.

-Irakaslegoaren prestakuntza, gobernua eta ekimen sozialen arteko hitzarmenaren bidez zehaztuko da.

### **Komunikabideak**

-Gizartean duten eraginagatik eta euskara sendotu eta zabaldu asmoz, irrati euskaldunak legezkatuko dira.

-ETBren errepikagailuak sare publikoaren barnean txertatuko dira.

-Euskal prentsarako laguntzak ziurtatuko dira eta komunikabide guztietan euskararen erabilera zuzpurtuko da.

### **Gizartea**

-Kirola, kultura eta aisialdia euskaraz burutzeko eta jasotzeko herritarren eskubi-dea ziurtatuko da. Administrazioek beren kultur eskaintzan euskararekiko tratamendu orekatua eman ez eta eskaintza pribatuan euskararen erabilpena bultzatuz eta finantziatuz.

-Langilegoa euskalduntzeko eta barne iharduna euskaratzeko plangintza prestatzen duten enpresei zein langabezia dauden herritarrei, laguntza eta sari bereziak eskainiko zaizkie.

-Merkatari, profesional eta elkarrekin euskararen aldeko eginkizunak sustatuko

dira.

Hauek dira puntuak, eta hauek lortzeko sortu zen taldea. Baina berriro lehen batzarrera itzuliz taldearen eginkizunak edo helburuak ez zirela honetan geratu esan behar da. Hori dela eta, esan beharra dago hiru helburu orokor finkatu zirela bertan:

\*Euskararen alde aritzea lan iraunkorra burutuz eta batasunak eskaintzen digun indarra zutabetzat hartuz...

\*Eskakizunetan zehaztutako puntuak lortzea.

\*Euskararen aldeko ekimenak koordinatzea, EKBn parte hartuz.

### **Haseratik orain arteko balantze gisa**

Orain arte burututako lanak aldi ezberdinetan ikus ditzakegu ideia orokorraz jabetzeko. Dena den, aldiak inoiz ez direla hemen azalduko ditugun bezain garbiak izan ulertu behar da nahasiagoak baizik-

-1. aldia: osatze unea litzateke, hots, sorrera prozesuan definitu edo deskribatu duguna eta indar bilketa baten ondotik Iruñean burutu zen I. Batzarrarekin bukatutzat emanen genukeena. Bertatik puntuak definituta eta lan ildo batzu zehaztuta atera ziren, ondorengo pausuetan ikusiko ditugunak.

-2. aldia: harreman garaia. Puntuak ezagutarazteko eta atxikimenduak lortzeko, alderdi politikoeekin zein sindikatuarekin eta zenbait talderekin elkarketak izan genituen.

Honen ondorioz Nafarroako alderdi politiko gehienak "Oinarriak"en alde azaldu ziren (prentsurrekoa ere egin zuten). Halere, bi alderdi handienak ez ziren azaldu, hots, PSOE eta UPN nahiz eta behin baino gehiagotan saiatu ginen kontsensuaren beharra azpimarratzen.

Sindikatuak ordea, guztiak atxikitzen dira. Hauek ere prentsurreko bat eskaini zuten. Beste aldetik, Europako Hizkuntza Gutxituen "Bureau"ko osoko Biltzar batera gure txostena bidali eta Lehendakariak atxikimendua idatzirik bidali zuen.

-3. aldia: prentsa. Eritzi artikuluen bidez arloz arlo gure puntuak, nahiak eta filosofia azaltzen hasi ginen. Fase hau nahiko luzea izan zen eta azkenean, eritzi talde huts batean ez ote ginen bilakatzen ari sumatu zen

-4. aldia: kale informazioa. Aintzineko etapan ikusitakoa ikusirik kaleratu behar zen informazioa. Ildo honetik hiru gauza atera ziren.

Lehenengoz, eta ez etapa honetan bakarrik, herrietako taldeak sortzearen beharra ikusten zen. Sentsibilitate hau betidanik hagitzen erratua egon bada ere taldean, ez da lortu herrietan benetako inizatibarik plataformaren inguruan, ondorioz taldeak bere lana beste ildotatik eraman behar izan du ( puntu hau ahaztu gabe ). Bide honetan hitzaldiak eman ziren herrietan puntuak eta asmoak azaltzeko.

Bigarrenez, puntuak laburtuz idazki bat atera zen eta hirugarrenez gizarteratze prozesu honetan puntuak era bisual batez azaltzeko panel handi batzu asmatu eta

kaleratu ziren.

-5. aldia: elkarrizketa eskaria. Etapa berri honetan puntuak lortzearen bidea jorratu behar zen eta honetarako Nafarroako Lehendakaria den Juan Cruz Alliri bilera bat burutzea eskatu zitzaion, bileraren helburuak honela azaldu zitzaizkiolarik: nahiak zuzenean azaltzeko ( idatzita ere alde zurretik eman ziren ), eritziak ezagutzeko eta elkarren adostasunaren ildotik eskatutakoa errealitate bihurtzeko lehentasunak eta erritmoak zehazteko.

Bilera oraindik ez da burutu baina bere eritzia idatzirik igorri zuen. Gutun honi erantzuna eman genion prentsaren bidez eta Lehendakariak irakurrita, berriro idatzi zigun.

-6. aldia: etapa honetarako bi helburu finkatu ziren, alde batetik gure ikuspegienginguruan eritzi trukaketa eta ezagupenerako eztabaida gune bat antolatzea eta beste aldetik jendartearen "Oinarriak"-ek zuen aldekotasuna azaltzeko ekimenak burutzea.

Lehen helburua betetzeko hitzaldi edo mahai-inguruak antolatu ziren ( lau, zuzen azaltzeko ). "Euskararen egoera Nafarroan eta bere berreskurapenerako oinarriak" gai orokorraren inguruan lau hitzaldi antolatu ziren. "Administrazioaren eginkizuna berezko hizkuntzen berreskurapen eta garapenean" bertan EAE, Nafarroa eta Catalunya hizkuntza politikarako Zuzendarietz gain Nafarroako Senatorea den eta era berean "Oinarriak" taldeko kidea den bat egon ziren. "Euskara, enpresa eta lan munduan", kasu honetan CCOO, UGT, ELA eta LABeko sindikatuen kideekin batera Telefonikako zuzendaria aritu zen. "Euskara eta Hezkuntza", Unibertsitate, Lanbide-eskola, ikastetxe publikoa, ikastolak eta Gobernuaren ordezkariak egon ziren. "Euskara aztergai: Nafarroako gaur egungo joerak", toponimian adituak, soziolinguistikan eta Unibertsitateko jendea izan zen. Guztietan noski "Oinarriak"eko partaideak.

Eta bigarren helburua betetzeko "Agerraldia" antolatu zen. Aldarrikatzen diren nahiak gurdietan irudikatuz eta dantzari, musikari, e.a.ekin osatu zen desfile ikusgarri batean tartekatuz milaka euskaltzale atera zen kalera jaigiro apartan manifestazio antzeko zerbait burutuz.

Bi ihardunak arrakastaz burutu ziren, lehenari dagokionez sakonketa bizi bizia eman zelako eta bigarrenean jendearen nahia garbi azaldu zelako.

Gai guzti hauetatzen gain, taldean beste gai batzu egon dira mahai gainean koordinazioa eta partehartzeari buruzkoak, antolaketari buruzkoak (taldea inolako dedikazio eskusiborik gabe aritu da, talde guztietako ordezkariak astero bildu direlarik) eta bestelako arazo teknikoagoak (finantzazioa e.a.).

Gauza bat garbi dago bederen, bi urtez segidan elkarlan iraunkor eta sistematikoa burutu da dagoeneko.

### **Antzinera begira**

Taldeak egunez egun ate berriak aurkitu ditu eta burua pixka bat agertuz lan eremu zabalak aurkitu. Eremu horietan bideak jorratzea dagokio bere indar mugatuak ongi neurtuz nekatu gabe eta gelditu gabe, batasunak eskaintzen duen oihartzunaz baliatuz euskararen alde ari den talde bakoitzaren lana indartzuz.

Zentzu honetan guztion buruan dauden gaiak hauek dira: Aldarrikapenak lortu beharra, lehentasunak zehaztu egin dira aplikatzeko moduetan eta erritmoetan sakontzen saiatu behar da. Eztabaida gune aproposak sortzen segitzea eta bertan botatzen edo azaltzen diren eritzien hedapena egitea bertan hartzen diren konpromezuetan lotuz eta iragan maiatzean burutu ziren mahai-inguruekin hasita. Kontsensuaren beharra azpimarratzen segitu. Maila guztietako konpromezuak lotu, herrietan, taldea berrosatuz, Administrazioan... Euskararen egia zabaltzeko lan didaktikoa burutu beharra (sentsibilizazio lanak), jarrerak positibizatzen alde batetik eta pragmatismoa landuz bestetik euskaraz bizitzearen aukera landu.

Gaur egun "Vascuence"ren legea aldatzeko dauden aukeretan eragin, euskararen legea bilaka dezagun. Erasoei erantzun, gauza onak txalotu eta bul tzatu. EKBn gure partehartzea hobetu e.a.

Edozein kasutan eguneroko lanari jarraitu poliki poliki ereintzen denak uzta izanen duelako.

**Eduardo Conde**  
*"Oinarriak" Taldeko partaidea*